OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Urtarrilaren 9ko 1/1996 FORU DEKRETUA, baso ustiaketen kubikazioari buruzkoa.

SARRERA
1. artikulua.-
2. artikulua.-
3. artikulua.-
4. artikulua.-
5. artikulua.-
6. artikulua.-
7. artikulua.-
8. artikulua.-
9 artikulua.-
AMAIERAKO XEDAPENAK
Lehena
Bigarrena
Hirugarrena

BOG 25 Urtarrila 1996

Uztailaren 6ko 6/1994 Foru Arauak, Gipuzkoako Mendienak, erabakitzen du 57. artikuluan katalogatu gabeko herri mendietako eta partikularretako baso ustiaketek aurretik Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuaren baimena behar dutela, eta departamentu horri dagokiola ustiaketari lotutako operazioak zuzen egiteko baldintza teknikoak finkatzea eta, era berean, basoari berritzen laguntzeko beharrezko diren neurriak seinalatzea ere. Baimenean adieraz daiteke aurretik seinalatu behar dela zein zuhaitz bota behar diren eta, era berean, ustiaketaren amaieran egiaztatu egingo dela.

Basoen kudeaketa egokiak exigitzen du ahalik eta zehatzen jakitea zein den herrialde historikoan egiten diren baso ustiaketen bolumena, oinarrizko helburuei erantzuteko, hau da, mendien iraunkortasun, zaintza eta produkzio gaitasuna bermatzeko. Horretarako, komenigarritzat jotzen da baso ustiaketarako eskaerak kubikazioari buruzko informea edukitzea barruan, egin nahi den ustiaketaren benetako bolumena egiaztatuko duen ofizialki errekonozitutako tasatzaile batek izenpetua.

Horri guztiari jarraituz, uztailaren 6ko 6/94 Foru Araueko 47.2 artikuluan eta Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta Herrialde Historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7a)9 artikuluan erabakitakoaren arabera eta Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko foru diputatuaren proposamenez eta aldez aurretik Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren.

ERABAKI DUT

1. artikulua.-

Gipuzkoako Mendiei buruzko uztailaren 6ko 6/1994 Foru Araueko 57. artikuluak aipatzen dituen katalogatu gabeko herri mendietako eta partikularretako ustiaketako amaierako mozketa egiteko baimen eskaerak kubikazioari buruzko informea eduki behar du.

Informe horrek eskatutako ustiaketaren bolumena adierazi behar du, Nekazaritza eta Ingurugiroko Departamentuak ofizialki onartutako tasatzaile-kubikatzaile independente batek izenpetua.

Informe-kubikazio hori beharrezko izango da txanda ailegatu zaielako ustiaketako amaierako mozketak egiteko egiten diren eskaeretan bakarrik.

2. artikulua.-

2.1.- Aurreko artikuluan adierazitako ondorioetarako, Gipuzkoako herrialde historikoko baso ustiaketen Tasatzaile-Kubikatzaileen Erregistroa eratu da, Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Izadizaintzako Zuzendaritzari atxekita eta Departamentu horretako Basozaintza Zerbitzuak kudeatuko duena.

2.2.- Foru Dekretu honetako lehen artikuluan erabakitakoa gauzatzeko, Mendi eta Izadizaintzako Zuzendaritzan Gipuzkoako herrialde historikoko mendietako baso ustiaketen kubikazio informeak egiteko baimena lortu duten guztiak sartuko dira Erregistro horretan.

Araba eta Bizkaiko Tasatzaile-Kubikatzaileen Erregistroetan behar bezala izena emanda dauden tasatzaile-kubikatzaileak ere egin ditzakete lan horiek, bederatzigarren artikuluan erabakita- koari jarraituz.

2.3.- Gipuzkoako herrialde historikoko mendietako baso ustiaketen kubikazio informeak egiteko Mendi eta Izadizaintzako Zuzendaritzaren baimena lor dezakete gai horri buruzko ezagutza teoriko eta praktikoak dituzten adinez nagusiko pertsona fisikoak eta, era berean, pertsona juridikoetako langileak ere, baldin eta pertsona fisikoei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen badituzte.

2.4.- Ezagutza teoriko eta praktikoen titulazioa edota ikasketa ziurtagiria eta/edo egiaztatutako esperientziaren ordez Foru Diputazioak, Zurgintzako Sektoreko Elkarteekin batera, aldizka antolatutako prestakuntza ikastaroak edo gaitasun proba gainditzeak ere balioko du.

2.5.- Baimena lortzeko eskaerak ondoko datuak izango ditu, eta Tasatzaile-Kubikatzaileen Erregistroan sartuta egon behar dute.

- Izen-deiturak edo enpresaren izena.

- Lanbidea edo enpresaren jarduera.

- Helbidea.

- NA edo IFK.

Enpresek gainera adierazi beharko dituzte informeak egiteko baldintzak betetzen dituzten langileen datuak.

2.6.- Baimena eta izen ematea bost urterako izango dira, beste hainbesteko denborarako luza daitezkeenak, interesatuak horrela eskatuta.

2.7.- Baso ustiaketari buruzko informekubikazioak Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Baso Inbentarioan sartuko dira, Gipuzkoako herrialde historikoko datuak eguneratuta egon daitezen.

3. artikulua.-

Gipuzkoako herrialde historikoko baso ustiaketetako tasatzaile-kubikatzaile izateko baimena eta erregistroan sartzeko eskaera Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko agirien sarrerako Erregistro Ofizialean aurkeztuko dira Mendi eta Izadizaintzako zuzendariaren izenean. Ondoren, Mendi eta Izadizaintzako zuzendariak aurkeztu eta ondorengo epearen barruan, egoki derizkion egiaztapen eta informeak eduki ondoren, baimena emango du eta tasatzaile-kubikatzailea inskribatzeko agindua eman edota ezeztu egingo du horretarako arrazoiak emanez.

Aurreko puntuan adierazitako ebazpen epea espreski ebazpenik eman gabe iragaten bada, eskaera onartutzat hartuko da.

Mendi eta Izadizaintzako zuzendariaren ebazpenaren kontra errekurtso arrunta jar daiteke Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko foru diputatuari zuzenduta.

4. artikulua.-

Gipuzkoako herrialde historikoko Tasatzaile- Kubikatzaileen Erregistroak Kontrol Batzordea edukiko du, Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko ordezkariek, Zurgintzako Sektoreko Elkarteek eta Basojabeen Elkarteek osatuko dutena. Batzorde horren zeregina izango da gai horietan, eta erregistroan sartu edo ateratzean egongo diren arazoetan aholkua eta lankidetza ematea. Dena dela, erregistroan sartu edo ateratzeak ekar ditzakeen arazoak Mendi eta Izadizaintzako zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko dira.

5. artikulua.-

Mendi eta Izadizaintzako zuzendariak, interesatuari entzun eta espediente administratiboa ireki ondoren, erabaki dezake tasatzaile-kubikatzaileen erregistroko inskripzioa aldi baterako suspenditzea edo behin-betiko kentzea, baldin eta benetan egiaztatzen bada beren erregistro zenbakia beste batzuk erabili dutela edota Kontrol Batzordeak egiaztatzen badu egindako kubikazioak ez direla behin eta berriz dagoenarekin bat etortzen.

6. artikulua.-

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak, dena dela, egiazta dezake eskatutako ustiaketen benetako bolumena ondoko hauen bidez:

a) Inputazio edo baliospenaren bidez, baso ustiaketaren bolumena zehazteko arau teknikoak erabiliz.

b) Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Zerbitzu Teknikoen informearen bidez.

c) Peritoen kontraesaneko kubikazioaren bidez.

7. artikulua.-

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak, Foru Aginduaren bidez, onar ditzake ustiatu nahi diren espezietarako kubikazioko arau teknikoak, tarifa eta kubikazio taulak eta, era berean, kubikazio informeak betetzeko inprimaki ereduak ere.

Foru Diputazioak mozteko baimena ezezta dezake kubikazio informea goian aipatutako kubikatzeko arau teknikoei edota tarifa edo kubikazio taulei ez bazaie atxekitzen kubikazio informea edota onartutako inprimaki ofizialak ez badira betetzen.

Kubikatzeko moduak eguneratzeko jardunaldiak antolatuko dira tarteka eta bertan une horretan dauden tekniken berri emango da.

Jardunaldi horiek akreditatutako tasatzailekubikatzaileentzat eta tasatzaile izan nahi dutenentzat antolatuko dira.

8. artikulua.-

Foru Diputazio honetan jasoko diren baso ustiaketarako eskaerekin batera Foru Dekretu honetako Eraskinean aipatu eta Erregistroan izena emanda dagoen tasatzaile-kubikatzaileak sinatutako kubikazio informea ekarri behar da.

Ez bada informe hori ekartzen, ez da ustiatzeko baimenik emango.

9 artikulua.-

Gipuzkoako Foru Diputazioak, Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuaren bidez, Araba eta Bizkaiko Erregistroetako arduradunekin elkarlanean aritzeko bidea jarriko du, herrialde historiko bakoitzeko tasatzaile-

kubikatzaileen berri izateko une orotan.

Herrialde historikoetako tasatzaile-kubikatzaileren bat Erregistrotik borratu, suspenditu edo behin-betiko kentzen bada, ezgaituta geratuko da Gipuzkoako herrialde historikoan Foru Dekretu honetan aipatzen diren lanak egiteko.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena

Foru Dekretu honetan erabakitakoa 1996ko otsailaren 1etik aurrera aurkeztuko diren baso ustiaketetarako baimen eskaeretan aplikatuko da.

Bigarrena

Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Ingurugiroko foru diputatuari Foru Dekretu honetan erabakitakoa garatu eta gauzatzeko beharko diren xedapenak emateko.

Hirugarrena

Foru Dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.